



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.  
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

25dc2158d0b9033ce628e948401b8c109f2de9d4f209db730f98902d5abea58e

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

## **TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO AZAROAREN 24AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**2022.11.24**

Tolosako udaletxean, 2022ko azaroaren hogeita lauan, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburur Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeke, udal batzarkide hauek agertu dira:

### **Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **Parte hartu duten zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).  
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)  
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)  
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)  
Kristina Pelaez Errazquin (EH BILDU)  
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)  
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)  
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)  
Jose M. Villanueva Telleria (PSE-EE)

### **Parte hartu ez duten zinegotziak:**

Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)  
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)

### **Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

### **Kontuhartzaile akzidentala:**

Paulino Alonso Eraso



### Gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:  
2022ko urriaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea, 2022. urterako, udal langileen ordainsarien igoera.
3. Hasierako onarpena ematea 2022ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 6-2022 proposamenari.
4. Onartzea itxitako ekitaldiko faktura.
5. Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.
6. Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen IV. Tituluaren (ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak) aldaketaren hasierako onespenera jendaurreko epean aurkeztutako alegazioa erantzutea, akatsa zuzentzea eta behin betiko onspena ematea.
7. Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantzan akats aritmetikoak zuzendu izanaren berri ematea.
8. Kreditu gehigarrien modalitateko 18/2022 kreditu aldaketarako espedientearen berri ematea.
9. Kreditu gehigarrien modalitateko 19/2022 kreditu aldaketarako espedientearen berri ematea.
10. Mozioa: Azaroaren 25a, Emakumeen aurkako indarkeriari kontra egiteko Nazioarteko eguna.
11. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio, gai hauek aztertzeko:

#### **1. AKTA HAU ONARTZEA:**

#### **2022KO URRIAREN 27KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.



## 2. ONARTZEA, 2022. URTERAKO, UDAL LANGILEEN ORDAINSAKIEN IGOERA.

### Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko azaroaren 16ko irizpena

#### AURREKARIAK

**Lehena.-** 2021eko abenduaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean 22/2.021 Legea argitaratu zen; bertan, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu ziren eta txosten honi dagokionez, sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak onartu ziren, % 2ko igoera aplikatuta udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an hartutako erabakiaren ondoren.

**Bigarrena.-** 2022ko urriaren 19an, aldiz, urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretua argitaratu zen, besteen artean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituen.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**Lehena.-** Bigarren aurrekarian aipaturiko Errege Lege Dekretua aplikagarria zaio sektore publikoan lanean dagoen pertsonalari, hau da, Udaleko langileei ere. Aipaturiko Errege Dekretuak 23 artikuluan hauxe xedatzen du:

«1. **Adicionalmente** a lo dispuesto en los capítulos I y II del título III de la Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022, y demás preceptos concordantes, con efectos de 1 de enero de 2022 las retribuciones del personal al servicio del sector público experimentarán **un incremento adicional del 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021.**

2. Ese incremento adicional se efectuará en los mismos términos dispuestos por el artículo 19.Dos, y seguirá las siguientes **reglas**:

1.<sup>a</sup> Se **aplicará sobre las retribuciones vigentes el 31 de diciembre de 2021**, de forma que la suma de ambos consolidará, en todo caso, un incremento retributivo global máximo para el ejercicio 2022 del 3,5 por ciento.

2.<sup>a</sup> Se materializará en la nómina del mes de noviembre de 2022, abonándose como atrasos el incremento correspondiente a los meses de enero a octubre de este año.

3.<sup>a</sup> En el ámbito de las comunidades autónomas y entidades locales se tendrá que materializar el pago antes del 31 de diciembre de 2022 y, en todo caso, con anterioridad al 31 de marzo de 2023.»

Hortaz, 2022. urtean sektore publikoko langileek % 1,5eko ordainsarien igoera gehigarria izango dutela 2022ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2021eko abenduaren 31n zuten ordainsariekin alderatuta.



**Bigarrena.-** Onartzeko prozedurari dagokionez, xedapen hauek kontuan hartu beharko dira:

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikularen arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duenak, 37.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, udal langileen ordainsarien igoeren aplikazioa Udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu beharko da. Gai hori 2022ko azaroaren 2ko bileran tratatu zen.

**Hirugarrena.-** Ordainsarien igoera honek, jadanik, Udaleko aurrekontuan zuzkidura du.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko azaroaren 16an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen . Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria eta Estitxu Kortejarena Ugarte.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**Lehenik.-** Tolosako Udaleko langileentzat (funtzionario, lan kontratudun zein behin-behineko langileak) % 1,5eko ordainsari-igoera gehigarria onartzea, 2022ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2021eko abenduaren 31ko ordainsariak erreferentzia gisa hartuta.

**Bigarrenik.-** Igoera aplikatu ahal izateko, aurrekontuan kontsignatua dagoen 156.009,56 euroko gastua onartzea, honako baldintza honekin: kredituak aldatzeko espedientea behin betiko onartuta egotea (Informazio publikoko epea, azaroaren 24an amaituko da).

**Hirugarrenik.-** Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako Udaleko langileek (funtzionario, lan kontratudun zein behin-behineko langileak) ordainsarrietan % 1,5eko igoera gehigarria izatea.

### **3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2022KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA**



**ALDATZEKO 6-2022 PROPOSAMENARI.**

**Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko azaroaren 16ko irizpena**

2022ko dirulaguntzen eranskinean, honako aldaketa hauek sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
1100.481.01.431.10	BABARRUN KOFRADIA	Ohiko jarduera	3.500	Izenduna

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortajarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Xarles Iturbe Pasabán, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balerdi Tolosa.

Hori dela eta, Batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena.**-Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskineko aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
1100.481.01.431.10	BABARRUN KOFRADIA	Ohiko jarduera	8.500	Izenduna

**Bigarrena.**- 2022ko dirulaguntzen eranskineko aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunez, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Epe barruan erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia



Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortajarena Ugarte eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **hasierako onarpena eman dio** dirulaguntzen eranskinaren aldaketari:6-2022

#### **4. ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAREN ONARPENA.**

##### **Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko azaroaren 16ko irizpena**

2003ko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa), kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Behean zehaztutako fakturak 2021eko ekitaldiko faktura data du eta 2022an jaso da, taula honetan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	ZENBATEKO A
2022-10-18	2021-11-20	BONBERENEA KE	21-003	15 x kamiseta, 1 x pantaila eta fotolitoak, 15 x inpresioa tinta 2	175,45 €

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46. artikulua xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordura arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharreri dagokienez. 2021eko abenduaren 31n, onartu gabe zegoen aipatutako obligazioa, eta 2022ko aurrekontutik onartuko da. Beraz, faktura horiek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortajarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Xarles Iturbe Pasabán, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balerdi Tolosa.

Hori dela eta, Batzordeak

**DIKTAMINATU DU**

Itxitako ekitaldiko faktura hau onartzea:



HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	ZENBATEKO A
2022-10-18	2021-11-20	BONBERENEA KE	21-003	15 x kamiseta, 1 x pantaila eta fotolitoak, 15 x inpresioa tinta 2	175,45 €

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du itxitako ekitaldiko faktura.

**5. ONARTZEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, UDALAK BEREZKOAK DITUEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK BIDE EXEKUTIBOAN BILTZEKO.**

**Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko azaroaren 16ko irizpena**

Udalerriak lurralde-antolaketaren oinarritzko erakundeak dira, bai eta herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbileneko bidea ere, eta bertako giza taldeen interesak autonomiaz kudeatzen dituzte.

I

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izen eta kontura, foru zerga sistema eraginkortasunez aplikatzea eta, oro har, beste herri administrazio eta ente batzuen zuzenbide publikoko baliabideak ere, horiek kudeatzeko ardura legez edo hitzarmen bidez bere gain uzten zaionean. Hitzarmen hau dela medio, Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabilketaren kudeaketarako dituen informazioa eta baliabide teknikoak udalerriaren esku jartzen dira.

II

Herri administrazioen arteko harremanetan elkar laguntzak printzipio gidaria izan behar duela aintzat harturik, eta 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide



Juridikoarenak, 140. artikuluan ezarritakoan oinarriturik, bi aldeek uste dute, zeinek bere helburuak betetze aldera, oso onuragarri izan daitekeela lankidetzaren sistema egonkor bat ezartzea zergabilketaren kudeaketan.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, «aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.»

Era berean, 8. artikulua dio «Udalak eta Foru Aldundia lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztian.»

Bestalde, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak 3.3 artikuluan jasotzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko organoek beste herri administrazio batzuen baliabideak biltzeko kudeaketa hartu dezakete haien gain, hitzarmenak formalizatuta eta horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Erregelamendu horrek berak gero 5. artikuluan dio tokiko entitateak arduratuko direla zorrak biltzeaz, eta honelaxe bilduko dutela: a) entitateek beraiek zuzenean edo, b) zorren esparruko beste lurralde ente batzuek, haiekin hitzarmena formalizatu bada edo ahalmen horren eskuorde eman bazaie.

## HITZARMENAREN PREMIA ETA EGOKITASUNA

Gaur egun, Tolosako Udalak zergabilketa exekutiboaren kudeaketa zerbitzu kontratu baten laguntzaz egiten du (2020SABI002 espedientean dago jasota). 2020ko otsailaren 1ean sinatu zen 2 urterako, 1+1 luzapen aukerarekin.

Kontratu horren xedea da laguntza tekniko-juridikoko zerbitzua ematea zergak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk betearazpen-aldian biltzeko, besteak beste.

Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatzeak ez du esan nahi bilketa exekutiboa udalean egingo ez denik, baizik eta, gehigarri bat izatea espero da. Udalak kobratzeko dituen baliabideak agortu ondoren bakarrik bideratuko litzateke zorra Foru Aldundira, haien baliabideak Udalarenak baino ugariagoak baitira

Hori, zorraren 2. urtean egitea aurreikusten da; urte betez saiaturiko da Foru Aldundia zorra kobratzen, eta lortu ezean, Udalera itzuliko da.

Hitzarmenak aukera berriak zabaltzen dizkio Udalari, ez du derrigortasunik ezartzen.

## ERAGIN EKONOMIKOA

Zerbitzuaren kostua jasotakoaren % 10 da. Ezer jasotzen ez badute, ez da kosturik sortzen. Kobratzea hiru hilabetez behin egiten da, eta orduan kobratzen dute aipaturiko % 10 hori.

## KONTRATUKOA EZ DEN IZAERA

Lankidetzaren hitzarmenaren xedeak ez du hartzen kontratuei dagokien berezko prestaziorik. Izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuei buruzko legerian





aurreikusitakora egokituko da, sektore publikoaren araubide juridikoen, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

## TXOSTEN JURIDIKOA

Txosten juridikoak hau adierazi du, besteak beste:

«...

### **ONDORIOAK:...**

*Bestalde, Hitzarmenaren Bederatzigarrenko Klausula "Indarraldia" zuzendu beharko litzateke :” gehienez ere lau urtekoa izango da. Epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.»*

## KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA

Fiskalizazio txostenak honako hau adierazten du, besteak beste:

«...

### **FISKALIZAZIO TXOSTENAREN ONDORIOAK**

*Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin, lehen deskribatutako moduan eta baldintzetan:*

#### **ERREPARO EZ ETENARAZLEA**

#### **Erreparo ez etenarazlearen arrazoia hau da:**

*B.3.- Hitzarmenak 4 urtetik gorako iraupena izatea.*

*Bederatzigarren klausularen arabera, hitzarmena abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, baina luzatutzat joko da urtez urteko epe jarraituetan bi aldeetako batek ez badu amaiera espresuki gaztigatzen.*

*40/2015 Legearen 49. artikulua lau urtetara mugatzen ditu hitzarmenak. Lau urteko epe hori luzagarria da, baina bukatu aurretik hitzarmena sinatzen dutenek adostu beharko lukete luzapena.*

*Kontuan hartuta ez-betetzea ez dela sartzen 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan eta 32/2018 Foru Dekretuaren 12.3 artikuluan ezarritako etete-eragozpenen kasuetan, bidezkoa da desadostasuna ebaztea, hala badagokio, 21/2003 Foru Arauaren 70. artikuluan eta 32/2018 Foru Dekretuaren 15. Artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera.*

#### **Beste baldintzak:**

*1.- 2023ko konpromisoei dagokienean, klausula bat sartu beharko litzateke adierazteko 2023an gastuaren baimena baldintzatuta geratuko dela ekitaldi horretako aurrekontuan nahiko kreditua izatera.*

*2.- Halaber, udalaren erabakiak ez luke adierazi behar, proposatzen den moduan, GFA-k bere gain hartzen duela udalaren sarrerak bide exekutiboan biltzeko ardura, baizik eta soilik udaletik bidalitako zorrak biltzeko ardura. »*



## Foru Aldundiari hitzarmena aldatzeko proposamena egin zaio eta hau adierazi du:

Hitzarmen eredu hau nahiko zaharkituta dago eta jabetzen gara berritzeko beharrean dagoela 40/2015 Legea egokitzeko (laster egin nahi dugu).

«Orain arte, azken aldi sinatu diren hitzarmenetan, aldatu da 30/1992 legearen aipamena pareko 40/2015 Legearen artikuluek (140. Artikulua), besterik ez, Kontseiluak onartutako eredu bat delako eta ez dugu ezer gehiago ikutu. Dena dela onartutako hitzarmen testuan terminologia ezberdina erabiltzen da (delegazioa, zergabilketako lanak beregain hartzea...) eta beraz hitzarmenaren izaera ez dago behar bezain argi. Ulertzen ari gara, eta eredu berria ere horrela landuko da, Kudeaketa mandatu bat dela (40/2015 legeko 11. Artikulua) eta beraz hauek ez dituztela bete behar 48.9 artikulua araber, VI kapitulu zehazten diren baldintzak (epea kasu). Adibidez horrela ulertzen ari dira Jaurilaritzan ere gai berberarekin EHUrekin duten hitzarmen baten Adenda bat, justu epea automatikoki luzatzea onartzeko. Gauza bera AEATrekin EJK sinatzen duen hitzarmen baten txosten juridikoan ere.

***Se ha de matizar que si bien el capítulo V de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público contiene una regulación completa sobre los convenios, su artículo 48.9 establece que las normas del capítulo V no son de aplicación a las encomiendas de gestión».***

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Aho batez onartu dute.

Hau dela eta, batzordeak

### DIKTAMINATU DU

**LEHENA.** GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko lankidetzaren hitzarmena egitea onartzea.

**BIGARRENA.** Hitzarmena Tolosako Udalaren izenean Olatz Peon Ormazabal alkateak sinatu dezan ahalordetzea.

**HIRUGARRENA.** Hitzarmenaren edukia honako hau izatea:

### ESTIPULAZIOAK

**Lehena. Hitzarmenaren xedea eta erregimen juridikoa.**

*Hitzarmen honek baldintzak eta prozedura ezartzen ditu Udal izenpetzailearen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko jarduketak Gipuzkoako Foru*



*Aldundiak bere gain har ditzan Ogasun eta Finantza Departamentuaren bitartez.*

*Jarduketa horiek arautzeko honako hauek hartuko dira kontuan:*

- a) *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamendua.*
- b) *Hitzarmen honen oinarriak.*
- c) *Aplikagarri diren gainerako arauak.*

### **Bigarrena. Aplikazio eremua.**

*Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren bitartez, Udal izenpetzailearen zuzenbide publikoko sarrerren bilketa exekutiboa bere gain hartu ondoren, Hitzarmen hau Gipuzkoako Lurralde Historikoan biltzekoak diren zorrei aplikatuko zaie.*

*Hitzarmen honetan xedatutakoa jarduera ekonomikoen gaineko zerga edo ondasun higiezinaren gaineko zerga kudeatzeko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetu dituzten hitzarmenen kaltetan gabe ulertuko da.*

*Hirugarrena. Jarduteko eskaera, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari zuzendua.*

*1. Zergabilketa exekutiboan jarduteko eskaerak Udaleko alkateak egingo ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ogasun Zuzendari Nagusiari zuzenduta. Horretarako, hitzarmen honen I. eranskinean ageri den eredia erabiliko du, eta bi ale beteko ditu. Eskaera hilean behin egingo da gehienez, eta bertan sartzen diren zorrak zenbateko nagusiari buruzkoak izango dira beti. Bidezkoa denean, zenbateko nagusiari dagokion premiamenduzko errenergua gehituko zaio.*

*2. Eskaerak tramitatu ahal izateko, ondoko informazioa jaso beharko dute:*

- a) *Zordunaren izen-abizenak edo sozietate izena, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eta helbidea.*
- b) *Zein likidazio sartzen diren eskaeran, bakoitzari buruz honako datuak adieraziz: kontzeptua, ekitaldia, zenbatekoa, borondatez ordaintzeko epea amaitu den eguna, eta premiamenduzko probidentzia noiz egin den.*
- c) *Premiamenduzko bidean biltzeko azken egintza administratiboa zein egunetan jakinarazi den, zorra ere adieraziz, hala badagokio.*

*3. Udalak euskarri magnetikoan bidali behar ditu zor guztiak. Euskarri magnetikoak bete behar dituen ezaugarri teknikoak hitzarmen honen II. eranskinean zehazten dira.*

*4. Onartua izan baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu informatikoei euskarri magnetikoa balidatuko dute, beti ere bere ezaugarriak II. eranskinean aipatzen diren zehaztasunekin bat ote datozen egiaztatzeko.*

*Udalak bidaltzen duen euskarri magnetikoak ez baditu II. eranskinean zehazten diren beharkizun teknikoak betetzen, euskarri hori errefusatu egingo da eta udalari bueltatuko zaio.*

*5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zergabilketa*



*exekutiboaz arduratzen den organoak egin behar dituen balidazioek baldintzatuko dute euskarri magnetikoaren behin betiko onarpena.*

*Adierazitako datuak zuzenak ez badira, Udalak erantzungo du horrek eragin ditzakeen kalteengatik.*

*6. Jarduteko eskaeran sartzan diren likidazioek irmoak behar dute izan, eta ezingo dute 10 €-tik beherako zenbatekorik eduki. Jarduteko eskaera behin eginda Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak onartzen badu, Udalak ezingo du inolako jarduketarik egin bertan sartutako zorren kontra.*

*7. Zergabilketaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak bere gain hartu ondoren, kudeatu beharreko zorreatatik Udalari egiten zaizkion ordainketak Gipuzkoako Foru Aldundiak zergabilketarako duen kontu murriztuan sartuko dira.*

### **Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eginkizunak.**

*1. Jarduteko eskaera hirugarren oinarrian adierazitako beharkizunen arabera behin jaso ondoren, Ogasun eta Finantza Departamentuak Udalaren alde eramango du aurrera eskaera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduan araututako prozedurari jarraiki.*

*2. Zuzenbide publikoko sarrerak direla-eta Udalak eskatzen duen jarduketan Ogasun eta Finantza Departamentuak zeregin hauek izango ditu: premiamenduzko probidentzia jakinaraztea, bidezkoa denean, kontu bankarioak bahitzea, hirugarrenen kredituak bahitzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kredituak konpentsatzea, eta soldatak bahitzea (zigor ez-tributarioen kasuan izan ezik).*

*3. Hitzarmen honetan aipatzen diren zuzenbide publikoko sarreraren bilketa kudeatzeko, Ogasun eta Finantza Departamentua zuzenbide publikoko sarrera propioak eta bere organismo autonomoenak bide exekutiboan biltzeko erabiltzen duen sistema berberaz baliatuko da. Gainera, zorrak behar bezala bildu ahal izan daitezten, Departamentuak informazioa eskatuko ahal izango dio hitzarmena izenpetzen duen Udalari. Udalak ez badio informazio eskaerari hilabeteko epean erantzuten, edo agerikoa bada emandako erantzuna ez dela nahikoa gertatzen, Ogasun eta Finantza Departamentuak uko egingo dio zorren kobrantza kudeatzeari.*

*4. Egindako jarduketan emaitza negatiboa denean, haiekin lotuta dauden likidazioak Udalari itzuliko zaizkio. Horri begira, gehienez ere 18 hilabeteko epea ezartzen da zergabilketako organo eskudunak behar diren jarduketak egin ditzan, eta epe hori Udalak jarduteko eskaera egiten duen egunetik aurrera kontatuko da.*

### **Bosgarrena. Okerreko sarreraren itzulketak.**

*Okerreko sarreraren itzulketak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza*



*Departamentuak bide exekutiboan biltzeko geratu diren zorrekina zer ikusia dutenean, itzulketak horiek honela kudeatuko dira:*

- a) *Okerreko sarrerak jada likidatu den epealdi bati dagozkionean, administrazio titularrak itzuliko ditu, hau da, Udalak.*
- b) *Okerreko sarrerak likidatu gabeko epealdiari dagozkionean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak itzuliko ditu.*

### **Seigarrena. Errekurtsoen erregimena.**

1. *Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zergabilketa exekutiboaz arduratzen den organoari dagokio hitzarmen honen xede diren jarduketan aurka aurkezten diren errekurtsoak bide administratiboan ezagutu eta ebaztea.*
2. *Auzia ebazteko aplikatu beharreko araudia errekurritutako zergabilketa jarduketari lotutako likidazioak nolako izaera duen, eta hari dagokiona aplikatuko da.*
3. *Premiamenduzko prozedura administratiboa errekurtsoak aurkezteagatik eteteko, kasuan kasuko prozedura arau aplikagarri jarraituko zaie. Horrelakoetan, Udalak berehala jakinarazi beharko dio hori dena Gipuzkoako Foru Aldundiko zergabilketa organoari.*

### **Zazpigarrena. Zerbitzuaren kostua.**

*Zerbitzuagatik Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu behar dion kostua zergabilketa gordinaren %10ekoa izango da.*

### **Zortzigarrena. Likidazioak egitea eta udalei fondoak transferitzea.**

*Hiru hilean behin Ogasun eta Finantza Departamentuak hitzarmen honen xede diren jarduketan emaitza jakinaraziko dio Udalari, eta horretarako III. eranskinean ageri den eredua erabiliko du.*

*Era berean, hiru hilean behin, aurreko hiruhilekoan bildutakoa likidatuko du, zazpigarren oinarrian aipatzen den zerbitzuaren kostua zenbateko horretatik kenduz.*

*Informazio horri kasu bakoitzean bidezkoa den dokumentazioa erantsiko da.*

### **Bederatzigarrena. Indarraldia.**

*Hitzarmen hau sinatzen den egunetik, urte bereko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta bere epemuga iritsi baino gutxienez bi hilabete lehenago bi aldeetako batek ez badu haren amaiera espresuki gaztigitzen, luzatutzat joko da zuzenean urtez urteko epe jarraituetan.*



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.

**6. URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA, ETA INGURUMENA, PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAREN IV. TITULUAREN (OSTALARITZA ETA JOLAS JARDUERAK BAIMENTZEA ETA EZARTZEA ARAUTZEKO BALDINTZAK) ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENARI JENDAURREKO EPEAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA ERANTZUTEA, AKATSA ZUZENTZEA ETA BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.**

**Lurraldeko batzorde informatiboaren 2022ko azaroaren 16ko irizpena**  
**AURREKARIAK**

<b>Dokumentua</b>	<b>Data/Zk.</b>	<b>Oharrak</b>
Bilera irekia ostalariekin	2021/11/24	
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko taulan	2022/03/22- 2022/04/12	
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia web orrian	2022/03/22	
Bilera irekia herritarrekin	2022/03/29	
Informazio publikoko epearen amaiera	2022/04/12	
Informazio publikoan jasotako eskaera	2022/04/11	Euskal Herria plazako eta inguruko bizilagunena
Txosten juridikoa informazio publikoari buruz	2022/05/03	



Ordenantza proposamena	2022/06/01	Aldekoa, gomendioekin
Berdintasunari buruzko txostena	2022/06/07	
Idazkariaren ziurtagiria aurretiazko kontsultaren informazio publikoari buruz	2022/06/08	
Hizkuntza baldintzei buruzko txostena	2022/06/08	Aldekoa, baldintzekin
Lege-txostena	2022/06/13	Aldekoa
Irizpen-proposamena	2022/06/16	
Udaleko idazkari akzidentalaren ziurtagiria udalbatzak 2022/06/30eko Ohiko Osoko bilkuran hartutako erabakiaz	2022/07/07	Hasierako onespena ordenantzaren aldetari
Iragarkia GAO	2022/07/21 (139 zk.)	
Iragarkia udaletxeko iragarki-taulan	2022/07/26- 2022/09/07	
Iragarkia web orrian	2022/07/26	
Alegazioa aurkeztea	2022/09/05	Euskal Herria plaza eta inguruko bizilagunak
Informazio publikoko epearen amaiera	2022/09/07	
Txosten juridikoa informazio aldiari buruzkoa	2022/09/19	
Idazkariaren ziurtagiria informazio aldiari buruzkoa	2022/09/20	

## AZTERKETA JURIDIKOA

### I. ORDENANTZAREN JENDAURREKOAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA:

Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzaren IV. Tituluaren (*ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak*) aldetaren hasierako onespeneri jendaurrean jartzeko aldiari aurkeztutako alegazio bakarrari dagokionez, honakoa adieraz daiteke:

2022ko irailaren 5ean erregistratu zuen Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiagak, Euskal Herria plazako eta inguruko bizilagunen ordezkari-taldea bidezko zuzeneko iradokizunak.

“Erreklamazioak eta iradokizunak” izeneko idazkian, ordea, ez da aurkeztu



ordezkaritza-batzorde hori eratu dela egiaztatzen duen dokumentaziorik.

Idazkiak hamar erreklamazio eta iradokizun biltzen ditu, Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen IV. tituluaren (*ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak*) aldaketa-testuari lotutako alegazio gisa.

Zehazki, hauek dira aurkeztutako alegazioak:

- **Lehenengo alegazioa**: adierazi dute 115. artikuluko aginduak establezimenduen barneko instalazioei bakarrik dagozkiela, eta ez direla kanpoko luzapenak aipatzen (terrazak eta antzeko instalazioak); beraz, kanpoko kontsumoa hots-kontrolrik gabe geratzen dela.

Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 10.1.b epigrafea erreferentziatzen hartuta, zera eskatu dute: establezimenduek edo jendearentzat irekitako espazioek auzokideen bizikidetzan eta atsedendian eragiten dituzten eragozpenak salatu ahal izatea, bai eta, kasu horietan, eskumena duen administrazioak probak egin ahal izatea ere, dagozkion baliabide teknikoekin, salatutako eragozpenak benetan badaudela egiaztatzeko, eta agintari eskudunek lortutako emaitzen arabera joka dezaten, hala badagokio, horiek eragozteko.

- **Bigarren alegazioa**: arreta jarri dute bide publikoan, terrazetatik edo antzeko instalazioetatik kanpo zutik kontsumitzean, adieraziz egoera horrek ez duela kontsumoa ordenatzen eta sortutako zarata kontrolatzen laguntzen. Onartu da hasieraz onetsitako testuak berriaz debekatzen duela.

Adierazi dute apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentzioari buruzkoak, 31.3.d epigrafean debekatu egiten duela edari alkoholduinak bide publikoan saltzea eta hornitzea, terrazetan, mahaitxoetan edo udalaren berriazko baimena duten jardueretan izan ezik. Eta lege horren 68. artikulua ezartzen duela udalen eskumena dela lege horretan aurreikusitako neurriak gainbegiratzea eta kontrolatzea, baina, hala ere, egoera horietan kontsumoa normalizatuta dagoela.

Horregatik, diziplina zorrotzagoa ezartzea eskatu dute.

Adierazi dute, establezimenduen kanpoko leihoak mostradore gisa erabiltzen direla, terrazetatik kanpo kontsumitzea bultzatuz, eta horiek erabiltzeko modu hori debekatzeko eta egunerokoan kontrolatzeko eskatu dute.

- **Hirugarren alegazioa**: adierazitako egoera konpontze aldera, eskatu dute Udalak urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, EAEko hots-kutsadurari buruzkoan, ezarritako jarduerak abian jartzea:





- Ordenantza egitea edo egokitzea, hala badagokio, eta dagokion ordenantza onartzea.
- Zarata-mapak egitea, berrikustea eta onartzea.
- Zarata-mapei dagozkien kutsadura akustikoaren arloko ekintza-planak (zarata-mapak onartu eta urtebetera).

Adierazi dute jarduera horiek moteltzeko neurriak zehazteko datu fidagarriak emango dituztela eta eskatu dute berrikuspenean dagoen ordenantzan adierazi behar dela jarduerak jarduketa horien ondorioz hartzen diren neurrien mende daudela.

- **Laugarren alegazioa:** adierazi dute Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) Ondare Katalogoak ezartzen duela Euskal Herria plaza monumentu izendatuta dagoela eta katalogo horren VI. atalean adierazten dela Monumentu Artistikoa izendatzeko 1964ko urtarrilaren 17ko Aginduan (Interes Historiko-Artistikoko Monumentu Probintziala) ezarritakoaren arabera egon behar dela, eta Babes eta Zaintzarako 1958ko uztailaren 22ko Dekretura igorri behar dela.

Horrekin lotuta, adierazi dute dekretuaren interpretazio zentzudunak monumentuaren eta haren ingurunearen ingurumen-babesa oinarrizkoa dela defendatzera eramaten duela.

- **Bosgarren alegazioa:** adierazi dute, gaur egun, EAEn Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak arautzen duela kultura-intereseko ondasunen babesa, honakoa gogoraraziz:
  - 7. artikulua adierazten du herritarren parte-hartzea bultzatuko dela ondarearen kontserbazioan, sustapenean, erabileran eta hedapenean, informazioa eskuratzea erraztuz, eta edozein pertsonak duela legitimazioa ondarea defendatzeko.
  - 50. artikulua adierazten du debekatuta dagoela haien gainean kutsadura bisuala edo akustikoa eragiten duten elementuak instalatzea. Zentzu horretan, ostalaritzako erabilerak eragindako gehiegizko kutsadura akustikoak Monumentua kontserbatu, balioetsi, sustatu, erabili eta zabaltzeko ekintza publikoarekin laguntzeko prest dagoen herritarren partaidetza-mugimendu bat abian jartzea eragiten ari dela adierazi dute.

Adierazi dute egoera horrek etxebizitzaren devaluazioa dakarrela eta, zuzendu ezean, Monumentua degradatu egingo dela.

- **Seigarren alegazioa:** adierazi dute Euskal Herria plaza eta bere ingurunea (9.1 hirigintza-azpierenua) Birgaitzeko Plan Bereziak, 2010ekoak, hau jasotzen duela:
  - 5. artikulua. Bere helburuen artean dago ondare historiko-artistikoa babestea eta balioestea, etxebizitzaren kalitatea hobetzea, espazio



publikoak hobetzea eta mantentzea.

- 6.4 artikulua. Espazio publikoak hobetzeko jarduketa-programa bat egin behar dela adierazten du.

Artikulu horien baitan, adierazi dute Euskal Herria plaza eta bere ingurua hobetzeko filosofia bat badago ere, ez dela, benetan. praktikara eman.

Hala, adierazitako Plan Bereziaren edukia aztertuta, ondorioztatu dute hirigintza-dokumentu horietan ikuspegi nagusia eraikitzailea eta urbanizatzailea dela eta, ez dela kontuan hartzen gutxieneko bizi-kalitatea bermatzeko, ingurumen-alderdiak funtsezkoak direla.

Hortaz, aipatu dute, plazaren egungo erabilerak ez duela helburu horietako bat bera ere betetzen; aitzitik, horien aurka doala, etxebizitzaren kalitatea murrizten duelako, espazio publikoen erabilera okertzen eta zailtzen duelako, eta ez duelako nabarmentzen ondare historikoa osatzen duen ondasun gisa duen balio kulturala.

- **Zazpigarren alegazioa**: inguruko ostalaritza-jarduerak berrantolatzea eskatzen dute.

Bereziki kontuan hartzea eskatu dute Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak Arautzen dituen abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoa:

*«Ingurumena eta hiri-ingurunea babesteko edo historia- eta arte-ondarea zaintzeko, udalek debeku, muga edo murrizketak ezarri ditzakete, ordenantza edo erregelamendu bidez, bermatzeko ez dagoela establezimendu publiko eta jolas-jarduera gehiegi batera, edo beste giza edo gizarte-jarduera batzuekin batera egin daitezkeela».*

Beharrezkotzat jotzen dute eremu horretako ingurumena babestea, ostalaritza-establezimenduen instalazioari, handitzeari, kategoria-aldaketari eta abarri mugak jarritz.

- **Zortzigarren alegazioa**: aurreko alegazioarekin lotuta, eskatu dute Euskal Herria plazak eta bere inguruneak tratu berezia jaso dezatela dagoen 9. eremuari «Gorosabel-Rondilla» dagokionez. Idazketa berria PROPOSATU DUTE 1. eranskineko taularako:
  - 1., 2., 5., 6., 7. eta 8. multzoei lotutako jarduerak mugatuta instalatzeko aukera emango da, indarrean dagoen hirigintza-plangintza eskusiboaren arabera, eta, batez ere, eraikin horien erabilera bereizgarrien osagarri eta lagungarri direla aldeaz aurretik eta nahitaez justifikatu beharreko



ekipamendu-erabileretarako. (9. eremuko «Gorosabel-Rondilla» gainerako eremurako ezarritakoaren berdina).

- Erabat debekatzera 3. eta 4. taldeetako jarduerak ezartzea.
- Jarduera-aldaketei dagokienez:
  1. Lizentzia duten jarduera guztiak aldatu ahal izango dira talde txikiagoko beste batera. Inola ere ez da onartuko goragoko talde batera aldatzea.
  2. 2. taldeko establezimenduetan bakarrik baimenduko da jarduera aldatzea, baldin eta taberna-jarduerarako lizentzia badute eta taberna-jatetxeko jarduera edo soilik jatetxeko jarduera egin nahi badute.
- **Bederatzigarren alegazioa**: Eskatu dute 2. eta 3. jarduera-taldeen arteko aldea argitzea, jardueraren edukia argiago definituz. Ulertzen dute lausotuta dagoela eta ondorioak dituela.

104.2, 105.3. D.c eta 115 epigrafeak argitzeko eskatu dute.

Adierazi dute, jarduera bat talde batean edo bestean egoteko ordenantzan ezartzen den funtsezko aldea ordutegiena dela, baina talde bati edo besteari esleitzeko, hainbat ezaugarri tekniko eta beste mota batekoak ere bete behar direla. Ez ordutegiengatik.

**Hamargarren alegazioa**: eskatu dute ordenantza berria berriaz jasotzea establezimenduaren ezaugarri buruzko informazio-plaka edo -kartel bat jartzeko betebeharra, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legearen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 29. artikuluan jasotzen den bezala.

Hala eskatzen da, ulertzen baita ia establezimendu batek ere ez duela instalatuta.

Aintzat harturik adierazitako alegazioen edukia, honakoa adierazten da:

**I. Lehenengo alegazioari dagokionez**, udala izapidetzen ari den Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzara jo behar dugu, baita izapidetzen hasi berriak garen Zaratari eta bibrazioei buruzko Ordenantzara ere.

Bereziki, Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzan, zenbait neurri hartzen dira terrazen eta gainerako elementuen baldintza akustikoen gaineko eraginei dagokienez (8, 16.9, 24.3, 26.1, 26.2, 26.3 eta 30.3 atalak, besteak beste).

Halaber, azken ordenantza horren eremuan sartzeko da titulartasun pribatuko espazioen barruan kokatutako ostalaritzako establezimendu publikoei erantsitako terrazak edo beste elementu batzuk arautzea, pasabideak eta erabilera publikoa



murriztuta, hala nola, barne-patioak, merkataritza-establezimenduak edo jendearentzako sarbidea mugatuta duen ostalaritza-jarduera bati erantsitako esparru estali gabeak. Hainbat xedapen aplikatu behar dira horietarako, hala nola ordutegi-mugakoak. Horrela, instalazio horiek sor ditzaketen eraginen babesa zabaltzen da, erregulazioan sartzen baitira erabilera eta jabari publikoko lurzoruetan eta erabilera publikoko jabari pribatuko lurzoruetan instalatzen direnak ez ezik, igarotze eta erabilera publikoko mugak dituzten titulartasun pribatuko espazioetan kokatuta daudenak ere.

Era berean, adierazitako ordenantza horrek terrazak ustiatzeko jarduerak hiri-ingurumenean eta herritarren segurtasunean duen eraginari buruzko erreferentziak jasotzen ditu (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84 bis.1.a) artikulua), eta Udalak dagozkion neurriak hartzeko ahalmena ematen du, dagozkion egoera berrezartzea bermatzeko, terrazaren ustiapena egiten den baldintzek segurtasuna, osasungarritasuna, apaindura eta hiri-ingurumena behar bezala babestea bermatzen ez dutela egiaztatzen denean (Ordenantzaren 27.1 artikulua), eta baita lizentziak ez baimentzea edo ukatzea ere, baldin eta honako hauek bermatu ezin badira: ingurumena zaintzea, etxeko intimitaterako oinarrizko eskubidea babestea, osasuna eta segurtasun indibidual eta kolektiboa babestea, eta pertsonen eragozpenak edo osasunerako edo ongizaterako arriskuak eragin diezazkiekeen zaratarik edo bibrazioerik ez sortzea (8. art.). Horiek dira, beraz, Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzari erantsitako tresnak, garrantzi handikoak.

Bereziki, zaraten eta bibrazioen gaineko eraginari dagokionez, udala izapidetzen hasi den Zaratarik eta bibrazioei buruzko udal Ordenantzara jo beharko litzateke, gai horri buruzko berariazko ordenantza izango baita.

Udalaren asmoa da ordenantza espezifiko horretan –oraindik aurretiazko kontsultaren izapidetzan dagoena– jasotzea berariazko ordenantzen arabera arautuko direla terrazak eta instalazio osagarriak jartzeak eragindako zaratak, hala nola, eguzkitakoak eta toldoak, salmenta-produktuen erakusmahaiak, ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduekin lotutako beste elementu osagarri batzuk, zamalanetarako eremuak, Udalaren Trafiko eta Mugikortasuneko Ordenantzak horretarako araututakoaren arabera arautuko direnak, eta araututako beste jarduerak batzuk. Hala ere, asmoa da adieraztea berariazko erregulazioari kalterik egin gabe, Alkatetzaren Dekretu bidez dagozkion mugak eta neurriak hartu ahal izango direla sor daitezkeen eragozpenak gutxitzeko.

Hala, arautu nahi da berariazko erregulaziorik ez duten baina zaratak eragindako eragozpenak eragin ditzaketen beste arrazoi batzuk badaude, eta hala egiaztatzen bada, arau-hauste arintzat hartuko direla, eta ordenantza espezifiko horretan arau-hauste horietarako aurreikusitako zehapenak ezarriko direla, baldin eta egiaztatzen



bada etxebizitzan zarataren immisioa 40 dB (A) baino handiagoa dela eguneko ordutegian, eta 30 dB (A) baino handiagoa gaueko ordutegian. Hor sartuko lirateke hauek: etxebizitzan eta komunitate-guneetan sortutako etxeke zaratak eta espazio publikoan musika erreproduzitzeko ekipoak eta aplikazioak.

Gogoratu behar da, baita ere, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, besteak beste, honako zehaztapen hauek ezartzen dituela:

- Dekretuko 1.2 artikulua araberan, «Dekretu honen xedapenen mende egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden zarata-foku publiko nahiz pribatu hauek:
  - a) Erkidego- edo foru-eskumeneke errepede-, trenbide- eta portu-azpiegiturak;
  - b) Lizentzia, baimena, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena behar duten jarduera eta lanak;
  - c) Hiri-kaleak;
  - d) Bide publikoko lanak».
- 2.4 artikulua araberan, «4.– Dekretu honen ondorioetarako, honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten jarduerak berriztatuko dira:
  - a) Dekretu hau indarrean jarri ondoren aginduzko lizentzia, baimena, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena eskatzen dutenak.5.– Ez dira jarduera berriztatuko dekretu hau indarrean jartzean abian direnak, nahiz eta zarata-foku berriak eratzen dituzten aldaketak gauzatu. 51. artikulua xedatutakoa betez, jarduerari aplikatu dakizkiekeen mugak bete beharko dituzte bizitegi-lurzoruan gauzatu behar duten jarduerak izan ezik gainerako beste zarata-foku berri guztiek».

Dekretu horren eta ordenantza erregulatuaren espezifikoa xedea da, oraingo honetan interesatzen denerako, zarata-foku berrien gehieneko igorpen-balioak arautzea, eta ez du neurri erregulatuaren espezifikorik ezartzen zarata- eta bibrazio-mugei buruz, terrazak edo zarata-fokurik ez duten kanpoko beste elementu batzuk instalatzea bezalako kasuetan.

Kontuan izanik Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzak debekatu egiten duela zarata-foku berri bat instalatzea (kanpoko barrak; irudi eta/edo soinuak erreproduzizio-aparatuak, hala nola bozgorailuak, telebistak, musika-makinak edo antzeko beste edozein aparatu (ekipo informatikoak, karaokeak, etab.); era guztietako produktuak saltzeko makinak eta edariak eta/edo janariak edo antzeko ezaugarriak dituzten beste edozein prestatzeko instalazio osagarriak; ur- eta saneamendu-harguneak; haurrentzako jolas-makinak), hiriko ingurumenari eragin diezaioketen egoerak leheneratzeko neurriak har daitezkeen gaitzen duela, Zaratei eta Bibrazioei buruzko berriazko ordenantzak erregulazio espezifikorik ez duten kasuak edo arazoak eta zehapenak ezartzeko aukera arautuko duela, baldin eta egiaztatzen bada



etxebizitzan zarataren immisioa 40 dB (A) tik gorakoa dela eguneko ordutegian eta 30 dB (A) tik gorakoa gaueko ordutegian, eta Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzan instalazioek sor ditzaketen zarata- eta bibrazio-eraginak ahalik eta gehien mugatzeko hainbat neurri (8, 16.9, 24.3, 26.1, 26.2, 26.3 eta 30.3 paragrafoak, besteak beste) hartzen direla, ez da aurkitzen legezko euskarririk izapidetze bidean diren ordenantzek zaraten eta bibrazioen arloan dituzten neurriak areagotzea ahalbidetzeko.

10/2015 Legearen 10.1 b) artikuluan aitortutako eskubideari dagokionez, hau zehazten da: «establezimenduek edo jendearentzat irekita dauden lekuek sortzen dituzten eta auzokideen elkarbizitzari eta deskantsuari eragiten dieten eragozpenak salatzekeo eskubidea. Kasu horietan, eskubidea dute administrazio eskudunak probak egiteko, erabili beharreko baliabide teknikoak erabiliz, egiaztatze aldera ea salatutako eragozpen horiek benetakoak diren ala ez, eta eskubidea dute agintaritzak eskudunek jokatzeko lortutako emaitzen arabera, eragozpenak, hala badagokio, saiheste aldera». Eskubide hori legezko eskubide bat da, ordenamendu juridikoan txertatuta dagoena eta erabat indarrean dagoena eta aplikatzekoa dena.

Gogoratu behar da lege horren xedea dela «Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea, eta ezartzea zein baldintza eta betekizun izan behar dituzten ikuskizun edo jarduerok eskaintzen dituzten leku irekiek eta establezimendu publikoak». Horrela, establezimendu horien jarduera arautzen da eta jarduera horri udal-ordenantza batek ekin diezaioke.

Horrela, Legeak berak beste zehaztapen hauek finkatzen ditu:

\* 12.2 b) artikulua araberak, establezimenduen jabeen betebeharra da ikuskizun publikoak egiten direnean edo jolas-jarduerak egiten direnean establezimendu publikotik edo haren instalazio osagarrietatik zaratak eta eragozpenak sortzea saihestea, establezimendu horren kanpoaldeari eragiten badiote. Hori Ordenantzaren 125.2 artikuluan eta 1026. B artikuluan dago jasota.

\* 6.1 f) artikulua araberak, debekatuta dago kaleko ostalaritza-lokaletatik edo espazio publikoetatik ez datozen edariak pertsona-taldeek kontsumitzea, baldin eta, kontzentrazioaren edo kontsumoaren ekintzaren ondorioz, espazio publikoa erabiltzen duten pertsonen edo bizilagunen eragozpenak eragin ahal bazaizkie, inguruneko lasaitasuna hondatu edo osasungaitzasun-egoerak eragin badaitezke, gai horri buruz egin daitezkeen udal-erregulazioaren arabera.

Ildo horretan, izapidetze bidean den Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udala Ordenantzen IV. Tituluaren («Ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak») aldaketak berak, beste neurri batzuen artean, 115.5 artikuluan jasotzen du, arau orokor gisa, musika-ekipoak dituzten



establezimenduek ateak eta leihoak itxi behar dituztela, kanpora zuzenean soinurik ez igortzeko.

Ostalaritzako eta aisialdiko lokalen eta horien instalazio osagarrien (hala nola terrazak) kanpoko portaera zibikoak arautzea ez da adierazitako Ordenantzaren IV. Titulu honen xedea. Beraz, establezimenduen barruko edo haien instalazio osagarrietako jardueri buruzko erregulazioaz gain, **ez da uste lege-euskarririk dagoenik izapidetze bidean diren ordenantzetako testuek zaraten eta bibrazioen arloan dituzten neurriak areagotzeko**, bai adierazitako Ordenantzaren IV. Atalean zein terrazei eta gainerako elementu osagarriei buruzko Ordenantzan eta Zaratei eta bibrazioei buruzko Ordenantzan.

**II. Bigarren alegazioa** bide publikoan, terrazetatik edo antzeko instalazioetatik kanpo, zutik kontsumitzeari buruzkoa da, eta hemen ere aurreko puntuan aipatutakora jo behar da; hau da, kaleko edo espazio publikoetako ostalaritza-lokaletatik ez datozen edariak kontsumitzeko debekura (10/2015 Legearen 6.1 f) artikulua), bai eta lokalen kanpoaldean edariak kontsumitzeko debekura ere, 23:00etatik aurrera (17/2019 Dekretuko 35. art. eta 37.6 art.). Artikulu berak jasotzen du udal bakoitzak muga handiagoak ezar ditzakeela udal-ordenantzaren bidez. Tolosako Udalak, ordea, ez du egokitzat jo muga handiagoak ezartzea, nahiz eta gai hori Udalaren irizpiderik onenaren mende dagoen.

Bide publikoan edari alkoholdunak saltzea eta banatzea debekatuta dago, terrazetan, mahaitxoetan edo Udalaren berriarazko baimena duten jardueretan izan ezik. Debeku hori Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentzioari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 31.3.d) epigrafean dago jasota, alegazio-egileek adierazten duten bezala, eta orain aztertze bidean den ordenantzaren xedea ez da bide publikoan edari alkoholdunak saltzea eta banatzea.

Establezimenduen kanpoaldeko leihoak mostradore gisa erabiltzeari dagokionez, mostradore gisa erabiltzen dira, terrazetatik kanpo kontsumitzea erraztuz. Aipatu behar da bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantzaren 26.2 artikulua – izapidetze bidean– debekatu egiten duela kanpoko barrak instalatzea, eta, beraz, establezimenduetako leihoetan ezin dela barra edo mostradorerik erabili kanpoalderako edo terrazarako.

**Edonola ere, egoki ikusten da establezimenduetako kanpoko leihoetatik edarien eta kontsumizioen banaketarako debekua gehitzea, hori ez betetzeak ordenantzaren edukia haustea ekartzea, eta hori Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen IV. Tituluko («ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak») 115. artikulua sartzeko, paragrafo berri baten bitartez, modu honetan:**

**«115.6. Kanpoko barrak eta leihoak**



**Debekatuta dago kanpoko barrak instalatzea, bai eta establezimenduetako kanpoko leihoen bidez edariak eta kontsumizioak banatzea eta barra gisa erabiltzea ere».**

**III. Hirugarren alegazioa** EAeko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako jarduketak abian jartzeko eskaerari buruzkoa da, eta adierazi behar da gai, neurri eta jarduketa horiek ez direla orain aztergai dagoen ordenantza honen eremukoak, baizik eta izapidetze bidean den Zaratei eta bibrazioei buruzko Ordenantzakoak, eta zarataren eta bibrazioen arloan indarrean dagoen araudia betez Udalak hartu beharreko neurri zein jarduketenak eta onartutako tresnenak (hori da 2016an AAC Acústica y Lumínica enpresak idatzitako Tolosako zarata-maparen kasua).

**IV. Laugarren alegazioari dagokionez**, Euskal Herria plaza monumentu izendatu izana eta haren babes-araubidea egiazkoa denez, HAPOn Ondare Katalogoan hala aurreikusten baita, ez da aurkitu jendaurrean jarritako ordenantzan, haren edukia eta ezarritako betebeharrak betez, monumentuaren eta haren ingurunearen ingurumen-babesa ez betetzea edo urratzea.

Jendaurrean jarritako ordenantzaren erregulazioari dagokionez, aurkeztutako alegazio-idazkiak ez du zehazten edo egiaztatzen ez-betetzea edo urraketa.

**V. Bosgarren alegazioari dagokionez**, eta kultura-intereseko ondasunak babesteari dagokionez, adierazi behar dugu Ordenantzaren IV. Tituluko aurreikuspenen helburua ostalaritzako, jolaserako eta jokorako jarduera eta establezimenduen instalazio-, irekiera- eta funtzionamendu-baldintzak zehaztea eta arautzea dela, arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz, indarrean dagoen hirigintza-plangintza barne (100. art.).

Zaratei eta bibrazioei dagozkien neurriak hartzeari buruz aurretik arrazoitutakora jota, ez da ikusten jendaurrean jarritako ordenantzaren erregulazioak eta ostalaritza- eta jolas-jardueren garapenak (ordenantzaren beraren, izapidetze bidean den Zaratei eta bibrazioei buruzko Ordenantzaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren baldintzak betez) kutsadura bisuala eta akustikoa eragiten duenik; eta, horrek, ostalaritza- eta jolas-jarduera debekatzea edo jendaurrean egondako ordenantzak, aipatutako gainerako ordenantzek eta ordenamendu juridikoak arlo horretan jasotzen dituztenez bestelako neurriak hartzea dakarrenik.

**VI. Seigarren alegazioari dagokionez**, argitu behar dugu Euskal Herria plaza HAPOn «9. Gorosabel» eremuaren barruan dagoela eta «7. Hirigune Historiko» eremutik banatuta dagoela, Rondilla kaleak bereizita. Hala jasotzen da II.1.2 planoan, 2010eko urtarrileko HAPOn testu bategineko zonakatze orokorrean.

Izapidetze bidean den Ordenantzaren erregulazioan ez dugu inolako urraketarik aurkitu Euskal Herria plazari buruzko udal-plangintzako zehaztapenei dagokienez, eta ez da





bateraezina zehaztaper horiekin ostalaritza- eta jolas-jarduerak baimentzea, Ordenantzan eta gainerako ordenamendu juridikoan araututako edukia, baldintzak eta betebeharrak betez. Jarduera horiek gauzatzeak ez du bere kabuz definitzen ondare historiko-artistikoaren balioaren babesgabatasuna, ez eta etxebizitzaren edo espazio publikoen kalitatearen gutxitzea ere, eta uste dugu araututako baldintzek ez dituztela urratzen, beraz, udaleko hirigintza-plangintzako tresnen helburuak eta zehaztaperak.

Monumentuaren balio kulturala nabarmentzeari, espazio publikoak hobetzeari, eguneroko beste erabilera batzuen tratamenduari edo udaleko hirigintza-plangintzako tresnen ikuspegi eraikitzailea eta urbanizatzaila baloratzeari buruzko gainerako gogoetak Udalaren hirigintza-plangintzako jarduketari eta ahalari dagozkion gaiak dira, eta ez daude araututa aztergai dugun ordenantzaren IV. tituluari.

**VII. Zazpigarren eta zortzigarren alegazioen edukia** Euskal Herria plazan eta haren inguruan ostalaritza- eta jolas-jarduerak berrantolatzeko eskaerari eta 1. eranskineko taularako idazketa berri bat proposatzeari buruzkoa da:

1. 1., 2., 5., 6., 7. eta 8. multzoei lotutako jarduerak mugatuta instalatzeko aukera emango da, indarrean dagoen hirigintza-plangintzaren arabera eta, batez ere, eksklusiboki eta nagusiki eraikin horien erabilera nagusiak lagungarriak eta osagarriak direla justifikatzen duten aurretiazko eta nahitaezko ekipamendu-erabileren arabera. («9. Gorosabel-Rondilla» eremuaren gainerakorako ezarritakoaren berdina).
2. Erabat debekatzea 3. eta 4. taldeetako jarduerak ezartzea.
3. Jarduera-aldaketei dagokienez:
  1. Lizenzia duten jarduera guztiak aldatu ahal izango dira talde txikiagoko beste batera. Inola ere ez da onartuko goragoko talde batera aldatzea.
  2. 2. taldeko establezimenduetan bakarrik baimenduko da jarduera aldatzea, baldin eta taberna-jarduerarako lizenzia badute eta taberna-jatetxeko jarduera edo soilik jatetxeko jarduera egin nahi badute.

Proposatutako lehenengo bi puntuei dagokienez, adierazi behar da izapidetzen ari garen Ordenantzan araututakoari eusten zaiola, eta, beraz, Ordenantzen eranskineko I. Taulak eduki bera izango luke.

Jarduera-aldaketei dagokienez, Udalari egokituko litzaiokeen aukera-erabakia da, egoki eta behar bezala arrazoituta irizten bazaio, Euskal Herria plazaren eta haren ingurunearen ezaugarriek eta lehendik dauden establezimenduen jarduera-aldaketek establezimenduek beren jarduera aldatzeko aukera edo gaitasuna mugatzea goragoko talde batera sartzeko, edo soilik 2. taldean taberna-jatetxearen edo jatetxearen jarduera garatu ahal izateko.

Indarrean dagoen araudia betez gero, printzipioz babestuta egongo litzatekeen jarduera-aldaketa hori mugatzeko, motibazio objektiboa, kualifikatua behar da, lortu nahi diren babes-neurriak ezin direla bestela lortu justifikatzen duten datuetan



oinarritua, eta neurri mugatzaile proportzionatua eta ez-diskriminatzailea dela, ordenamendu juridikoak babestutako jarduera bat gauzatzea mugatzen ari baita.

**VIII. Bederatzigarren alegazioari dagokionez**, alegazio-egileek 2. eta 3. jarduerataldeen arteko aldea argitzeko eskatu dute, jardueraren edukia argiago definituz. Lausoa dela eta ondorioak dituela ulertzen dute. 104.2, 105.3. D.c eta 11 epigrafeei buruzko argibideak eskatu dituzte.

Adierazi dute jarduera bat talde batean edo bestean egoteko ordenantzan ezartzen den funtsezko aldea ordutegiena dela, baina talde bati edo besteari esleitzea ezaugarri tekniko jakin batzuk betetzearen arabera egin behar dela, eta ez ordutegien arabera.

Egia esan, badira beste desberdintasun batzuk bi taldeen artean: 3. taldean zuzeneko musika, antzerkiak eta abar baimentzen dira, eta 2. taldean jatetxeetan zuzeneko musika soilik baimentzen da bazkari-ordutegietarako, edo oturuntza-aretoetan, xede horretarako aretoetara joaten diren pertsonentzat.

Ordenantzak honako hau adierazten du bi taldeentzat: «Saltoki horiek 2. taldean edo ostalaritza-jardueren 3. taldean sartzeko, bereziki kontuan hartzekoak izango dira, batetik, musika-aparatuak eta -ekitaldiak jartzeko, erabiltzeko eta garatzeko baldintzak, eta bestetik, jarduera garatzeko ordutegia. Horrela, saltoki horiek talde baten edo bestearen baldintzak betetzen dituzten heinean, jardueren 2. taldean edo 3. taldean sartuko dira».

Ostalaritzako establezimenduen tipologia desberdinak 17/2019 Dekretuaren I. eranskinean definitzen dira, eta 104. artikulua establezimendu moten eta horietan gara daitezkeen zerbitzu eta jardueren deskribapen xehatua egiten du, kategorien arabera. 2. eta 3. kategorien arteko bereizketa ez da deskribapen horretatik kanpo geratzen, eta, ordutegi-erregimenaren tratamenduaz gain (3. kategoriako jarduerak, 2. taldekoekin alderatuta, besteak beste, jarduera garatzeko gaueko ordutegi zabalagoa baimentzea dute ezaugarri), talde bati edo besteari atxikitako establezimenduen tipologietan gara daitezkeen jarduera edo zerbitzu motaren deskribapena ere jasotzen du.

Beraz, jarduera garatzeko ordutegia, musika-aparatuak eta -emanaldiak antolatu, erabili eta garatzeko baldintzak eta talde bati edo besteari atxikitako establezimendukategorietan garatu edo eman daitezkeen zerbitzu eta jarduera motak dira establezimenduak talde batean edo bestean sailkatzea erabakitzen dutenak, eta zehaztapen horiek talde batean edo bestean bereizi eta kokatzea ahalbidetzen dute, ezaugarri bereizgarri gisa.

Uste dugu 2. eta 3. taldeen sailkapena eta bereizketa bat datorrela Ordenantzan adierazitako eta jasotako irizpideekin, zeintzuek talde bati edo besteari atxikitzea justifikatzen baitute, talde bati edo besteari atxikitako establezimendu-tipologia bakoitzean eman daitezkeen zerbitzuei eta jardueri buruzko irekiera-ordutegien eta gainerako baldintzen arabera.



**IX. Hamargarren alegazioari dagokionez,** Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Legearen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 29. artikuluan jasota dago establezimenduaren ezaugarriei edo baldintzei buruzko informazio-idazkun edo -plaka bat jartzeko betebeharra, eta, beraz, zuzenean aplikatzeko betebeharra da.

Ordenantzak, gainera, honako aurreikuspen hau jasotzen du 125.4 A artikuluan: «Jendaurreko ikuskizunak egitean edo jolas-jarduerak garatzean, ixteko eta irekitzeko ordutegiak errespetatzeko betebeharra dute jabeek eta antolatzaileek; eta publikoak ikusteko moduko leku batean eta ongi irakurtzeko moduan jarri behar dute irekitzeko eta ixteko ordutegiei buruzko informazioa. Ostalaritza-, jolas- eta joko-jarduerentzat ezarritako irekitzeko eta ixteko ordutegiak ez betetzeagatik zehatzeko araubidea, abenduaren 23ko 10/2015 Legeak eta otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak araututakoaren mende egongo da».

## **II. ZENBAKIZKO AKATSA ORDENANTZAREN ARTIKULUETAN:**

Ikusi da ordenantzaren 123, 124 eta 125. artikuluetan zenbakizko akatsa dagoela. Izan ere, ez datoz bat aurreko artikuluen segidarekin. Hortaz, modu honetan zuzendu behar da:

1. Honakoa jartzen duen lekuan:

«123. artikulua. Ordutegiak

124. artikulua. Jarduera uztea eta jardueraren etenaldi jarraitua

125. Zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-araubidea, eta zehatzeko araubidea»

2. Hau jarri beharko luke:

“120. artikulua. Ordutegiak

121. artikulua. Jarduera uztea eta jardueraren etenaldi jarraitua

122. Zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-araubidea, eta zehatzeko araubidea».

**Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordeak, 2022ko azaroaren 16an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:**

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.



Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.- 2022ko irailaren 5ean Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiagak, Euskal Herria plazako eta inguruko bizilagunen ordezkartza-batzordeko zazpi kideren izenean, erreklamazioak eta iradokizunak izeneko idazkian aurkeztutako alegazioak ZATI BATEAN ONARTZEA; hain zuzen, era honetan:**

### Onartzen den alegazioa:

Bigarren alegazioa: egoki ikusten da establezimenduetako kanpoko leihoetatik edarien eta kontsumizioen banaketarako debekua gehitzea, ez betetzeak ordenantzaren edukia haustea ekarriz, eta hori Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzaren IV. Tituluko («Ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak») 115. artikularen testuan sartzea, paragrafo berri baten bitartez, modu honetan:

«115.6. Kanpoko barrak eta leihoak

Debekatuta dago kanpoko barrak instalatzea, bai eta establezimenduetako kanpoko leihoen bidez edariak eta kontsumizioak banatzea eta barra gisa erabiltzea ere».

### Onartzen ez diren alegazioak:

Lehenengo alegazioa: ostalaritzako eta aisialdiko lokalen eta horien instalazio osagarrien (hala nola terrazak) kanpoko portaera zibikoak arautzea ez da jendaurrean egondako Ordenantzaren IV. Tituluaren xedea. Beraz, establezimenduen barruko edo haien instalazio osagarrietako jardueri buruzko erregulazioaz gain, ez dut uste lege-euskarririk dagoenik izapidetze bidean diren ordenantzetako testuek zaraten eta bibrazioen arloan dituzten neurriak areagotzeko, bai adierazitako Ordenantzaren IV. Atalean zein terrazei eta gainerako elementu osagarriei buruzko ordenantzan eta Zaratei eta bibrazioei buruzko Ordenantzan.

Hirugarren alegazioa: EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako jarduketak abian jartzea ez da jendaurrean egondako Ordenantzaren IV. Tituluaren xedea, baizik eta izapidetze bidean den Zaratei eta bibrazioei buruzko Ordenantzakoa eta zarataren eta bibrazioen arloan indarrean dagoen araudia betez Udalak hartu beharreko neurri zein jarduketanak eta onartutako tresnenak.

Laugarren alegazioa: Euskal Herria plaza monumentu izendatu izana eta haren



babes-araubidea egiazkoa denez, HAPOren Ondare Katalogoan hala aurreikusten baita, ez da aurkitu jendaurrean jarritako ordenantzan, haren edukia eta ezarritako betebeharrak betez, monumentuaren eta haren ingurunearen ingurumen-babesa ez betetzea edo urratzea. Halaber, aurkeztutako alegazio-idazkiak ez du zehazten edo egiaztatzen ez-betetzea edo urraketa.

Bosgarren alegazioa: jendaurrean egondako Ordenantzaren IV. Tituluko aurreikuspenen helburua ostalaritzako, jolaserako eta jokorako jarduera eta establezimenduen instalazio-, irekiera- eta funtzionamendu-baldintzak zehaztea eta arautzea da, arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz, indarrean dagoen hirigintza-plangintza barne (100. art.). Hala, zaratei eta bibrazioei dagozkien neurriak hartzeari dagokionez, ez da ikusten jendaurrean jarritako ordenantzaren erregulazioak eta ostalaritza- eta jolas-jardueren garapenak (ordenantzaren beraren, izapidetzen hasi den Zaratei eta bibrazioei buruzko Ordenantzaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren baldintzak betez) kutsadura bisuala eta akustikoa eragiten duenik; eta, horrek, ostalaritza- eta jolas-jarduera debekatzea edo jendaurrean egondako ordenantzak, aipatutako gainerako ordenantzek eta ordenamendu juridikoak arlo horretan jasotzen dituztenez bestelako neurriak hartzea dakarrenik.

Seigarren alegazioa: jendaurrean egon den Ordenantzaren IV. Tituluaren erregulazioan ez da inolako urraketarik aurkitu Euskal Herria plazari buruzko udal-plangintzako zehaztapenei dagokienez, eta ez da bateraezina zehaztaper horiekin ostalaritza- eta jolas-jarduerak baimentzea, Ordenantza eta gainerako ordenamendu juridikoan araututako edukia, baldintzak eta betebeharrak betez. Jarduera horiek gauzatzeak ez du bere kabuz definitzen ondare historiko-artistikoaren balioaren babesgabetasuna, ez eta etxebizitzaren edo espazio publikoen kalitatearen gutxitzea ere, eta uste dugu araututako baldintzek ez dituztela urratzen, beraz, udaleko hirigintza-plangintzako tresnen helburuak eta zehaztaperak.

Monumentuaren balio kulturala nabarmentzeari, espazio publikoak hobetzeari, eguneroko beste erabilera batzuen tratamenduari edo udaleko hirigintza-plangintzako tresnen ikuspegi eraikitzailea eta urbanizatzaila baloratzeari buruzko gainerako gogoetak udalaren hirigintza-plangintzako jarduketari eta ahalari dagozkion gaiak dira, eta ez daude araututa jendaurrean egon den Ordenantzaren IV. Tituluan.

Zazpigarren eta zortzigarren alegazioak: jendaurrean egondako Ordenantzaren IV. Tituluko 1. eranskineko taularako proposatutako idazketari dagokionez, lehenengo bi puntuei dagokionez, adierazi behar da izapidetzen ari garen Ordenantza araututakoari eusten zaiola, eta, beraz, Ordenantzen eranskineko I. Taulak eduki bera izango lukeela.

Jarduera-aldaketei dagokienez, Udalarari egokituko litzaiokeen aukera-erabakia



da, egoki eta behar bezala arrazoituta irizten bazaio, Euskal Herria plazaren eta haren ingurunearen ezaugarriek eta lehendik dauden establezimenduen jarduera-aldaketek establezimenduek beren jarduera aldatzeko aukera edo gaitasuna mugatzea goragoko talde batera sartzeko, edo soilik 2. taldean taberna-jatetxearen edo jatetxearen jarduera garatu ahal izateko.

Indarrean dagoen araudia betez gero, printzipioz babestuta egongo litzatekeen jarduera-aldaketa hori mugatzeko, motibazio objektiboa, kualifikatua behar da, lortu nahi diren babes-neurriak ezin direla bestela lortu justifikatzen duten datuetan oinarritua, eta neurri mugatzaile proportzionatua eta ez-diskriminatzailea dela, ordenamendu juridikoak babestutako jarduera bat gauzatzea mugatzen ari baita.

Bederatzigarren alegazioa: ordutegiaz gain, badira beste desberdintasun batzuk 2. eta 3. taldeen artean: 3. taldean zuzeneko musika, antzerkiak eta abar baimentzen dira eta 2. taldean, berriz, jatetxeetan zuzeneko musika soilik baimentzen da bazkari-ordutegietarako, edo oturuntza-aretoetan, xede horretarako aretoetara joaten diren pertsonentzat.

Jendaurrean egondako Ordenantzaren IV. tituluak honako hau adierazten du bi taldeentzat: «Saltoki horiek 2. taldean edo ostalaritza-jardueren 3. taldean sartzeko, bereziki kontuan hartzekoak izango dira, batetik, musika-aparatuak eta -ekitaldiak jartzeko, erabiltzeko eta garatzeko baldintzak, eta bestetik, jarduera garatzeko ordutegia. Horrela, saltoki horiek talde baten edo bestearen baldintzak betetzen dituzten heinean, jardueren 2. taldean edo 3. taldean sartuko dira».

Ostalaritzako establezimenduen tipologiak 17/2019 Dekretuaren I. eranskinean daude definituta, eta 104. artikulua establezimendu moten eta horietan gara daitezkeen zerbitzu eta jardueren deskribapen xehatua egiten du, kategorien arabera. 2. eta 3. kategorien arteko bereizketa ez da deskribapen horretatik kanpo geratzen, eta, ordutegi-erregimenaren tratamenduaz gain (3. kategoriako jarduerak, 2. taldekoekin alderatuta, besteak beste, jarduera garatzeko gaueko ordutegi zabalagoa baimentzea dute ezaugarri), talde bati edo besteari atxikitako establezimenduen tipologietan gara daitezkeen jarduera edo zerbitzu motaren deskribapena ere jasotzen du.

Beraz, jarduera garatzeko ordutegia, musika-aparatuak eta -emanaldiak antolatu, erabili eta garatzeko baldintzak eta talde bati edo besteari atxikitako establezimendu-kategorietan garatu edo eman daitezkeen zerbitzu eta jarduera motak dira establezimenduak talde batean edo bestean sailkatzea erabakitzen dutenak, eta zehaztaper horiek talde batean edo bestean bereizi eta kokatzea ahalbidetzen dute, ezaugarri bereizgarri gisa.

Uste dugu 2. eta 3. taldeen sailkapena eta bereizketa bat datozela Ordenantzan adierazitako eta jasotako irizpideekin, zeintzuek talde bati edo besteari atxikitzea justifikatzen baitute, talde bati edo besteari atxikitako establezimendu-tipologia bakoitzean eman daitezkeen zerbitzuei eta jardueri buruzko irekiera-ordutegien eta gainerako baldintzen arabera.



Hamargarren alegazioa: Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Legearen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 29. artikuluan jasota dago establezimenduaren ezaugarriari edo baldintzei buruzko informazio-idazkun edo -plaka bat jartzeko betebeharra, eta, beraz, zuzenean aplikatzeko betebeharra da.

Jendurrean egondako Ordenantzaren IV. tituluak, gainera, honako aurreikuspen hau jasotzen du 125.4 A artikuluan: «Jendurreko ikuskizunak egitean edo jolas-jarduerak garatzean, ixteko eta irekitzeko ordutegiak errespetatzeko betebeharra dute jabeek eta antolatzaileek; eta publikoak ikusteko moduko leku batean eta ongi irakurtzeko moduan jarri behar dute irekitzeko eta ixteko ordutegiei buruzko informazioa. Ostalaritza-, jolas- eta joko-jarduerentzat ezarritako irekitzeko eta ixteko ordutegiak ez betetzeagatik zehatzeko araubidea, abenduaren 23ko 10/2015 Legeak eta otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak araututakoaren mende egongo da».

## **BIGARRENA.- Onartutako alegazioaren bitartez, jendurrean egondako Ordenantzaren IV. Tituluaren idazketa modu honetan aldatu da:**

Honakoa jartzen duen lekuan:

### **«115. art. Baldintza akustikoak**

Saltoki publikoek eta ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiten diren gainerako lekuek hemen ezarritakoa bete beharko dute: 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa, edo hura garatzen edo ordezkatzeko duen araudia.

Kasu bakoitzean legez eskatzen diren agiriekin batera, isolamendu akustikoko proiektu bat aurkeztu beharko da, teknikari gaituak egindakoa eta dagokion elkargo ofizialak oniritzitakoa, indarrean den araudira egokitzen dela justifikatzeko.

#### **115.1. Gehieneko soinu maila**

Baimendutako gehieneko soinu-igorpenaren maila honako hau izango da kasu bakoitzean:

1., 2., 5., 6. eta 7. taldeetan sartutako jarduerak: 75 dB(A)

2. taldean (sarbide guztietan ate bikoitza dutenean) eta 3. eta 8. taldeetan sartutako jarduerak: 90 dB(A).

4. taldeko jarduerak: 95 dB(A)

#### **115.2. Lokal mugakideei igorritako zarata-mugaren balioak**

Saltoki berriek (derrigorrezko lizentzia, baimena, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena ordenantza hau indarrean sartu ondoren eskatzen



dustenak) eta bizitegitarako hiri lurzoruan kokatuta dauden saltokiek, lokal mugakideei zarata edo dardara igortzeko duten gaitasuna handi dezakeen berritze edo aldaketaren bat egin behar dutenean, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko G eta H tauletan ezarritako balioak bete beharko dituzte.

Ordenantza hauek indarrean sartzen diren unean existitzen diren saltokiek, lizentzia emandako unean indarrean zegoen araudian ezarritako gehieneko igorpen-balioak bete beharko dituzte, eta, gehienez ere, bizitoki-lurzoruan jarriko diren jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzekoak diren arau tekniko orokorrak onartzen dituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan ezarritakoak.

### **115.3. Isolamendu akustikoa**

Ordenantza honetan sartutako saltokietan, Ordenantza honetan ezarritako immisio- eta igorpen-mugak beteko direla bermatzeko behar diren isolamendu akustikoko mailak bermatuko dira.

Edonola ere, eskatutako aireko zarataren gutxieneko isolamendua (Dnt,A) baimendutako gehieneko soinu mailaren arabera izango da, eta, orokorrean, honako hauek izango dira:

1. taldean sartutako jarduerak, eguneko ordutegia bakarrik dutenak (07:00-23:00): 60 dB(A)

1., 2., 5., 6. eta 7. taldeetan sartutako jarduerak: 65 dB(A)

3. eta 8. taldeetan sartutako jarduerak, eta 2. taldekoak (ate bikoitza dutenean): 70 dB(A)

4. taldeko jarduerak: 75 dB(A)

Inpaktu-zarataren (L<sub>n</sub>TW) gutxieneko isolamendua 40 dB(A)-koa izango da.

### **115.4. Soinu-mugatzailleak**

Soinuak erreproduzitzen dituzten iturri guztiek soinua mugatzeko sistema izan behar dute, talde bakoitzerako ezarritako gehieneko igorpen-balioak ez gainditzeko. Soinu-mugatzaillea manipulatzeko eragozten duen gailu bat izan behar dute soinu-mugatzaille guztiek, eta gailuaren mantentze-kontratua izan behar da.

Ostalaritza-jardueraren jabearen erantzukizuna da modeloa aukeratzea eta Ordenantza honetan jasotako mugak betetzea.

### **115.5. Ate eta leiho itxiak**





Soinua zuzenean kanpora irtetea eragozteko, musika-ekipoak dituzten saltokiek atearak eta leihoak itxita garatu behar dute jarduera. Salbuespen gisa, 1. eta 2. taldeetako saltokiek, 75 dB(A)-ko soinuaren gehieneko igorpen maila baimendua duten musika-aparatuak dituztenek, leihoak eta atearak irekita gauza dezakete jarduera, eguneko ordutegian bakarrik (07:00-23:00), eta 60 dB(A) gainditu gabe, ate eta leiho irekietatik 1 m-ra neurtuta, horien parean eta kanpoan.

3. eta 4. taldeetako saltokiek, eta 75 dB(A)-tik gora igortzen dituzten musika-aparatuak dituzten Ordenantza honetako gainerako taldeetako saltokiek, ezinbestean, atearak eta leihoak itxita eta ahosgabetuta garatuko dute jarduera. Gainera, sarrerako atearak bi ate izan behar dituzte, eta itxiera automatikoa, hidraulikoa edo itzulerako malgukia. Hala, haize-babeseke atarte bat eratu behar da, eta bi atearak itxita egon behar dute uneoro. Ate horien ekortze-eremuaren gutxieneko tartea 0,50 m-koa izango da».

Hau jarriko du:

#### **«115. art. Baldintza akustikoak**

Saltoki publikoak eta ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiten diren gainerako lekuek hemen ezarritakoa bete beharko dute: 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa, edo hura garatzen edo ordezkatzeko duen araudia.

Kasu bakoitzean legez eskatzen diren agiriekin batera, isolamendu akustikoko proiektu bat aurkeztu beharko da, teknikari gaituak egindakoa eta dagokion elkargo ofizialak oniritzitakoa, indarrean den araudira egokitzen dela justifikatzeko.

##### **115.1. Gehieneko soinu maila**

Baimendutako gehieneko soinu-igorpenaren maila honako hau izango da kasu bakoitzean:

1., 2., 5., 6. eta 7. taldeetan sartutako jarduerak: 75 dB(A)

2. taldean (sarbide guztietan ate bikoitza dutenean) eta 3. eta 8. taldeetan sartutako jarduerak: 90 dB(A).

4. taldeko jarduerak: 95 dB(A)

##### **115.2. Lokal mugakideei igorritako zarata-mugaren balioak**

Saltoki berriek (derrigorrezko lizentzia, baimena, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena ordenantza hau indarrean sartu ondoren eskatzen dutenak) eta bizitegitarako hiri lurzoruan kokatuta dauden saltokiek, lokal mugakideei zarata edo dardara igortzeko duten gaitasuna handi dezakeen berritze edo aldaketaren bat egin behar dutenean, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko



urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko G eta H tauletan ezarritako balioak bete beharko dituzte.

Ordenantza hauek indarrean sartzen diren unean existitzen diren saltokiek, lizentzia emandako unean indarrean zegoen araudian ezarritako gehieneko igorpen-balioak bete beharko dituzte, eta, gehienez ere, bizitoki-lurzoruan jarriko diren jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzekoak diren arau tekniko orokorrak onartzen dituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan ezarritakoak.

### **115.3. Isolamendu akustikoa**

Ordenantza honetan sartutako saltokietan, Ordenantza honetan ezarritako immisio- eta igorpen-mugak beteko direla bermatzeko behar diren isolamendu akustikoko mailak bermatuko dira.

Edonola ere, eskatutako aireko zarataren gutxieneko isolamendua (Dnt,A) baimendutako gehieneko soinu mailaren arabera izango da, eta, orokorrean, honako hauek izango dira:

1. taldean sartutako jarduerak, eguneko ordutegia bakarrik dutenak (07:00-23:00): 60 dB(A)

1., 2., 5., 6. eta 7. taldeetan sartutako jarduerak: 65 dB(A)

3. eta 8. taldeetan sartutako jarduerak, eta 2. taldekoak (ate bikoitza dutenean): 70 dB(A)

4. taldeko jarduerak: 75 dB(A)

Inpaktu-zarataren (L<sub>n</sub>TW) gutxieneko isolamendua 40 dB(A)-koa izango da.

### **115.4. Soinu-mugatzaileak**

Soinuak erreproduzitzen dituzten iturri guztiek soinua mugatzeko sistema izan behar dute, talde bakoitzerako ezarritako gehieneko igorpen-balioak ez gainditzeko. Soinu-mugatzailea manipulatzeko eragozten duen gailu bat izan behar dute soinu-mugatzaile guztiek, eta gailuaren mantentze-kontratua izan behar da.

Ostalaritza-jardueraren jabearen erantzukizuna da modeloa aukeratzea eta Ordenantza honetan jasotako mugak betetzea.

### **115.5. Ate eta leiho itxiak**

Soinua zuzenean kanpora irtetea eragozteko, musika-ekipoak dituzten saltokiek atek eta leihoak itxita garatu behar dute jarduera. Salbuespen gisa, 1. eta 2. taldeetako saltokiek, 75 dB(A)-ko soinuaren gehieneko igorpen maila baimendua duten musika-aparatuak dituztenek, leihoak eta aterak irekita gauza dezakete jarduera, eguneko



ordutegian bakarrik (07:00-23:00), eta 60 dB(A) gainditu gabe, ate eta leiho irekietatik 1 m-ra neurtuta, horien parean eta kanpoan.

3. eta 4. taldeetako saltokiek, eta 75 dB(A)-tik gora igortzen dituzten musika-aparatuak dituzten Ordenantza honetako gainerako taldeetako saltokiek, ezinbestean, ateak eta leihoak itxita eta ahosgabetuta garatuko dute jarduera. Gainera, sarrerako ateeak bi ate izan behar dituzte, eta itxiera automatikoa, hidraulikoa edo itzulerako malgukia. Hala, haize-babeseko atarte bat eratu behar da, eta bi ateeak itxita egon behar dute uneoro. Ate horien ekortze-eremuaren gutxieneko tartea 0,50 m-koa izango da

**115.6.** Kanpoko barrak eta leihoak

Debekatuta dago kanpoko barrak instalatzea, bai eta establezimenduetako kanpoko leihoen bidez edariak eta kontsumizioak banatzea eta barra gisa erabiltzea ere”.

**HIRUGARRENA.- Zuzentzea adierazitako Ordenantzaren IV. Tituluko 123, 124 eta 125. Artikuluetakoa zenbakizko akatsa, era honetan:**

Honakoa jartzen duen lekuan:

«123. artikulua. Ordutegiak

124. artikulua. Jarduera uztea eta jardueraren etenaldi jarraitua

125. Zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-araubidea, eta zehatzeko araubidea».

Hau jarri beharko luke:

«120. artikulua. Ordutegiak

121. artikulua. Jarduera uztea eta jardueraren etenaldi jarraitua

122. Zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-araubidea, eta zehatzeko araubidea»

**LAUGARRENA.- Kontuan izanik onartutako alegazioarengatik egindako testu gehitzeak eta egindako akats zuzenketak ez dutela funtsezko edukiaren izaerarik, BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA, Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzako IV. Tituluaren (ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak) aldaketaren azken idazketari, baietsitako alegaziotik eratorritako aldaketa zein akats zuzenketa sartu ondorengoa, eranskinean jasotzen den moduan.**

**BOSGARRENA.-** Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzako IV. Tituluaren (Ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak) aldaketaren testu osoa **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan argitaratzea**, eta Toki



Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera indarrean jartzea.

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren egoitza elektronikoa.

**SEIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea alegazio-jartzaileari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen IV. Tituluaren (ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak) aldaketaren hasierako onespenera jendaurreko epean aurkeztutako alegazioa erantzutea, akatsa zuzentzea eta behin betiko onspena ematea.

## **7. ETXEBIZITZAK ETA BIZITEGI ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO UDAL ORDENANTZAN AKATS ARITMETIKOAK ZUZENDU IZANAREN BERRI EMATEA.**

2022ko azaroaren 9ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ondorengo ordenantza argitaratu zen: etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantza.

Ikusirik 6. artikuluko lehenengo atalean arautzen den 3. Lerroko azken paragrafoan akats aritmetikoa dagoela, 2022ko azaroaren 11ko 2022/2693 Alkatearen Dekretuz honakoa ebatzi da:

«**LEHENENGOA.-** Zuzentzea 2022ko azaroaren 9ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantzaren seigarren artikuluko lehenengo atalean arautzen den hirugarren lerroko azken paragrafoan dagoen akats aritmetikoa, era honetan:

Honakoa jartzen duen lekuan:

“Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo),



gehienez ere 30.000 €. Lehentasunez birgaitu beharrekotzat jotako eraikinek edo lehentasunez birgaitu beharreko aldeetan daudenek (Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleak), urtean, dirulaguntza deialdi bakoitzean Udalak zehaztu dezakeenaren arabera, diruz laguntzeko moduko gastuaren % 10 gehiago jasoko dute, dirulaguntza gehigarri moduan, BEZik gabe, gehienez ere 20.000 euro arte”.

Hau jarri beharko luke:

“Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo), gehienez ere 30.000 €. Lehentasunez birgaitu beharrekotzat jotako eraikinek edo lehentasunez birgaitu beharreko aldeetan daudenek (Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleak), urtean, dirulaguntza deialdi bakoitzean Udalak zehaztu dezakeenaren arabera, diruz laguntzeko moduko gastuaren % 10 gehiago jasoko dute, dirulaguntza gehigarri moduan, BEZik gabe, gehienez ere 15.000 euro arte”.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Lurralde Batzorde Informatiboari zein Kontuhartzaitzari».

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **8. KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKO 18/2022 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.**

2022/18 kreditu gehigarrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2608 Alkatetza dekretuak hau dio:

### ***ALKATEAREN DEKRETUA***

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000018-00.*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*



### EBATZI DUT

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	40.600,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>40.600,00</b>

### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	40.600,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>40.600,00</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkatea

Idazkaria

Udaltzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

### **9. KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKO 19/2022 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.**

2022/19 kreditu gehigarrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2712 Alkatetza dekretuak hau dio:

### **ALKATEAREN DEKRETUA**

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana



*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000019-00.*

*Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.*

*Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau*

### **EBATZI DUT**

**Lehenengoa.**- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	17.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.500,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>21.000,00</b>

### **FINANTZAKETA**

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	21.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>21.000,00</b>

**Bigarrena.**- *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.*

Alkatea

Idazkaria

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **10. MOZIOA: AZAROAREN 25A, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN**



## **KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Azaroaren 25a, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA dela eta, EAJ-PNV, EHBILDU, eta PSE-PSOE talde politikoek aurkeztu duten mozioak hau dio:

«2003tik aurrera, emakumeenganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 115 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2022an zehar erail dituzten Sara Pina Iregi, Felisa S. P. eta Maria Luisa Larrañaga. Eta baita Tolosan eraildako emakumeak ere, María Elena Cal Troncoso (2010) eta María Caridad de los Ángeles (2012).

Azaroaren 25ean, emakumeek espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabili eta gozatzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi dugu, herritartasun osoa izateko gure eskubideen berme gisa, eta, azken batean, gure askatasun indibidual eta kolektiboaren berme gisa.

Esparru horretan aurrerapen asko lortu dira MFren eta beste erakunde batzuen borrokari esker, bai eta emakume askoren ahaleginari esker ere, eremu publikoaren eta espazio pribatuaren edo ugalketa-eremuaren banaketa emakumeen eta gizonen artean gainditzeko. Hala ere, gaur egun oraindik desberdintasun handiak daude batzuek eta besteek bizitza publikoaren parte-hartzean egin dezaketen erabilera.

Espazioaren berdintasunezko erabilera eta gozamen hori mugatzen duten mekanismo ugarien artean, mundu osoko emakumeek eta neskek jasaten duten sexu-indarkeria azpimarratu nahi dugu.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria horrek funtzio sozial zehatza du: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan eragindako sexu-indarkeriak, aurten nabarmen handitu denak, emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du, baita emakumeen nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoaren okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasunez gozatzeko eskubidea libreki adierazteko ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioaren betebeharra da eta helburua da eskura dituen estrategiak eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasuna eskubide osoz gauzatu ahal izan dezaten gure hiri eta herrietan.

Indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko, ezinbestekoa da berdintasun-politikei beharrezko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta baliabide ekonomikoak ematea, eta hori nahitaez egin behar dugu ikuspegi feministarekin, eguneroko ikuspegiarekin eta eremu guztietan. Krisi edo atzerakada ekonomikoa ez da aitzakia izan behar arazo larri eta kolektibo horri aurre egiteko beharrezko aurrekontu-murrizketa edo -izoztea justifikatzeko.

Horregatik guztiagatik, Tolosako Udalak, beraz, konpromiso zehatz hauek hartzen ditu bere gain:





1.- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen, haien seme-alaben eta haien mendeko pertsonen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jartzea, haien beharrei eta eskaerei entzunez eta erantzunez, babesteko, arreta jasotzeko eta berriro ez gertatzeko eskubidea bermatuko duten politika berriak diseinatzeko. Halaber, baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, administratiboak nahiz judizialak, publikoak, doakoak eta ez diskriminatzaileak direla bermatuko du edo bermatzeko dei egiten du.

2.- II. Protokoloa, erakundeen arteko jarduera eta koordinaziorako, emakume eta indarkeria matxistaren beste biktima batzuei arreta hobea emateko jarraipena egitea, herritarrei protokoloa gehiago zabalduko zaiela bermatzeko; arlo horretan inplikaturik dauden udal-langileak prestatzeko; gutxien jorrotutako alderdiak sakontzeko eta indarkeria matxistaren (sexu-indarkeria) formak eta esparruak zabaltzeko; emandako zerbitzuak sistematizatzen eta ebaluatzen; prebentzioaren edukiak berrikusteko eta erreparazio-politikak sustatzeko, eta abar.

3.- Jai giroan zein bestela ematen diren erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloa berriro eta hobetzen jarraitzea, eta hau Mugimendu Feministarekin eta Jai Batzordearekin batera egiteko konpromisoa hartzen du.

4.- Ikastetxeetako eskola-komunitate osoari zuzendutako hezkidetzaren proiektua indartzen jarraitzea, eta nerabeak eta gazteak sentsibilizatzeko eta haiei prestakuntza emateko zereginarekin jarraitzea, egungo egoerara egokituta, indarkeria matxistaren formak desnaturalizatzeko, eta arreta jarrita neskak ahalduzko eta mutilen maskulinitate-eredua zalantzan jartzeko (hauentzat, besteak beste, afektibitatea, harreman ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak, eta berdintasuna landuko dituen programa zehatzak aktibatuz), eta horrela, mota guztietako erasoak detektatzeko eta prebenitzeko eta harremanak sustatzeko.

5.- Neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako Jabetze Eskola sustatzen jarraituko du, hainbat gai-alar ezberdinak jorrotu ahal izateko, besteak beste, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab., 10 urtetik gorako neskei eta nerabeei zuzendutako autodefentsa feministako tailer iraunkorrak ere jasoz.

6.- Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxean behar diren zerbitzu eta baliabideak sortu eta/edo egokitu, eskualde mailan, emakumeen, haien seme-alaben eta mendeko pertsonen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta arreta emateko. Laster irekiko dituzte ateak, eskualdeko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan estuan.

7.- 2023rako berdintasuneko gastuaren eta inbertsioaren aurrekontua behar beste handitzeko konpromisoa hartzea, bai eta Berdintasun Saila sendotu eta indartzekoa ere.

Era berean, tolosarrei dei egiten diegu emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eguna dela eta Udalak eta mugimendu feministak deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten».



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu du** azaroaren 25a, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA dela eta, EAJ-PNV, EHBILDU, eta PSE-PSOE talde politikoei aurkeztu duten mozioa.

## **11.GALDERAK ETA ESKAERAK**

**Besterik gabe, 20:20ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.**

**ALKATEA**  
O. e.

**IDAZKARIA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022IPLE0011-2022-11-24 Ohiko osoko bilkura akta/2022-11-24 Ohiko osoko